



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



BARAKALDOKO AZKEN GUNE NATURALAK

BABESTEKO PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

-Ingurumenari dagokionez, Barakaldo ezkeraldeko gainontzeko udalerrriak bezala, azken bi mende hauetan industrializazio intentsiboak eragindako kalte ekologiko zein hirigintzakoak pairatu ditu.

-XX. mendeko 70 eta 80 hamarkadetatik aurrera, industria sektorearen gainbeherak Barakaldoko hainbat zonalde ingurumenaren aldetik berreskuratzeko aukera sortu zuen.

-Desegindako industriek utzitako eremuez gain Barakaldoko azken gune naturalak ere erabiltzen ari dira, txaletak, beharrezkoak ez diren autobiak eta trenbide sareak egiteko eta honi harrobiak zabaltzeko arriskua gehitu behar zaio.

-Baina, zerbitzu sektorean oinarritutako ekonomiak, hirigintza espekulazioak eta herri lanak ekonomiaren motore bilakatzeak kontrako efektua eragin du.

1-**Gorostitza**: Udalak 2002an onartu zituen Lurzoru Urbanizagarriaren Plan Partziala eta PERI (Barruko Berrantolaketaren Plan Berezia). Onarpen horrek aukera eman zuen baserritar auzo honetan eraikuntza masiboa eta espekulatiboa egiteko. Horrela, oso biztanle gutxiko auzoa izatetik toki txiki batean 200 etxebizitza eraikitzen igaro da, ia erdia txaletak.

2-**Errekatxo**: 80 familia bizi dira, baina arestian aipatutako PERIgatik 100 etxebizitza gehiago eraikitzen ari dira.

3-Eusko Jaurlaritzak Errekatxoko **Tellitu** auzo ezaguna “*Catálogo de Zonas Canterables del País Vasco*” dokumentuan sartu du, eta hori aurretiko baldintza bat da Tellituko harrobia berriro ustiatzen hasteko.

4- Super-Surrak **Argalarío**, **Errekatxoko** Harana eta **Sasiburu** zeharkatzen ditu, eta toki horietan triskantza handiak egingo dizkio inguru naturalari. Autobia hori garestia da, eta inguruko trafikoaren arazoa ez du konponduko. Ikus daitezkeen onurak ekonomikoak dira, obrak egiten eta finantzatzen dabilzan enpresentzat.

5- Hegoaldeko Tren-saihesbidea (“Variante Sur Ferroviaria”), hau da, proiektuan dagoen trenbide jakin bat, **Errekatxoko** Harana zeharkatzeko dago diseinatuta, Super-surraren parean hain zuzen, eta horrek esponentzialki handituko ditu toki horietan gauzatuko diren kalte ekologikoak nahiz barakaldarren bizitza-kalitateari egindakoak.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA

Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



-Argalario, Gorostitza eta Errekatxo auzoak, eta Sasiburu Mendikatea Barakaldoren eta inguruko herrien arnasa-gune berdea dira, eta gainera, aberastasun nabarmena gordetzen dute landare, animalia eta historiari dagokienez. Bestalde, aisia-tokia izaten jarraitzen dute barakaldar eta Ezkerraldeko herritarrentzat, industrializazioaren eta masifikazio urbanistikoaren garaitik hona.

-Lehen aipatutako guztiarengatik Barakaldoko azken gune naturalak babesteko proposamen hau aurkezten dugu, ez erabat zehaztu eta bukatutako proposamena bezala, eragile instituzional zein sozialen partaidetzarekin hobetu beharreko oinarri dokumentu bezala baizik.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



SASIBURU MENDIKATEA, ARGALARIO, ERREKATXOKO

HARANA, GOROSTITZA ETA CASTAÑOS IBAIAREN

INGURUNEA BABESTEKO PROPOSAMENA,

BARAKALDOKO UDALARI ZUZENDUTA.

PLANTEAMENDUA

Eremu urbanizatua inguratzen duten mendikateek hirien erreserba naturala osatzen dute, aisia-toki natural bezala eta hiriguneen ingurumen kalitatea mantentzeko leku aproposa.

Planteamendu honek garrantzi berezia du Barakaldo bezalako eremu urbanizatuan; inguruaren ordenamenduarekiko (Errekaxo, Sasiburu, Argalario, etab.) gabezia larria erakusten duen hiri handi eta jendetsua, alegia.

Hona hemen paradoxa bat: hiri eremu hau potentzialtasun handiko gune berdez inguratuta dago. Ezin dugu ahaztu gune naturalei udalerriko azaleraren hiru laurdenak dagozkiela; hala eta guztiz ere, gutxietsi izan da baliabide honen garrantzia gaur arte. Hau izan daiteke hiri eremuaren ondoan interes handiko gune naturalak eta aztarnategi arkeologikoak egotearen arrazoia.

Hala ere, etorkizunari begira gune hauen kontserbazioa bermatzeko eta gaurko biztanleriaren gozamenerako, ezinbestekoa da babes estrategia bat proposatzea. Estrategia hau lurzoruaren erabilera jasangarrian oinarritu behar da; honela inguruko baliabide natural, kultural eta paisajistakoen gozamena, kontserbazioa eta gune degradatuen berreskuratzearen artean oreka bat lortuz.

Herritarrek gertuen daukaten inguru naturalaz gozatzea eta bertara heltzea errazten duten azpiegiturak eskatzen dituzte. Barakaldoko inguruek oraindik balio handiko guneak gordetzen dituztenez, esku-hartze integralari ekiteko momentu egokia da hau. Esku-hartze honen helburua herritarrentzat autonomia den eta aldi berean hirigunearekin lotura mantentzen duen gune berde edo erreserba naturala lortzea da, naturarekiko harremanaz modu antolatuan gozatu ahal izateko.

Gune berdeen erreserba honek lurraldearen konfigurazioan zeregin aktiboa izan behar du. Helburua egitura arrazionalagoa duen diseinu paisajistakoa lortzea da, biztanle guztientzako nortasun seinale moduan; gune degradatuen berreskuratzearen bidez, hiriaren inguruan dauden eremuez dugun pertzepzioa hobetuz.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



Gune naturalek, ondo kudeatzen direnean, hirigune eta metropoli-gune hobeak eta bizitzeko egokiagoak garatzeko balio dute; kalitatezko bistak eskaintzen dituzte, ziklo hidrogikoa erregulatzen dute, haizearen higadura indarra moteltzen dute, airearen eta uraren kalitatea erregulatzen dute eta eremu urbanizatuan bizi ez diren animalia eta landare espezie ugari gordetzen dituzte. Inguru babestuei esker, izaki bizidun guzti hauen habitaten suntsiketari aurre egiten zaio. Gune degradatuen berreskuratzeak eta aktibitate aztoratzaileen kontrolak habitat hauek berreskuratzeke aukera ematen du.

Mendeetan zehar, gune hauek esparru ezberdinetako giza-jardueren lekukoak izan dira. Paisaian utzitako aztarnak, aztarnategi arkeologikoak eta eraikuntzek balio handiko ondarea osatzen dute, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiek ezagutu eta gozatzeko aukera izan dezaten modu egokian kudeatu behar dena; esate baterako, Urdandegietako burdinola. Aisia-tokiek bermatzen dute aukera hau, eremu hauek betidanik izan baitira aisiarako eta olgetarako kanpoko gune aproposak.

Proposatzen dugu

- 1.- Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak (HAPN-PGOU) Sasiburu Mendikatea, Errekato, Argalario Mendia, Gorostitza eta Castaños Ibaiaren ikuspegi orokorra izan dezala, inguru honen garapen iraunkorra bermatu behar duen kudeaketa plan baten bidez. Eta ingurumenarekiko konpromisoa erakusten duen jarrera etikoa har dadila; inguru gaineko eraginak nola saihestea ez ezik, inguru fisiko eta natural honen arazoak eta posibilitateak ere kontuan hartuz.
- 2.- Hirigintza legediak begiztatzen dituen konpetentzia eta posibilitateak onartuz, ingurumena irizpide erabakigarria izan dadila lurraldean egingo diren jarduera batzuk baztertzeko orduan. Ingurumen arloan hauek izango lirarteke helburuak:
 1. Udalerriko eremu guztietan balio ekologiko, paisaiarenak, emankor eta zientifiko-kulturalak bermatzea.
 2. Balio natural garrantzitsua gordetzen duten edo berreskuratu daitezkeen eremuak babestea eta haien erabilera eta bertan egiten diren jarduerak erregulatzea.
 3. Jarduera jasanezinak jasotzearen ondorioz degradatuta dauden elementuak eta natura-prozesuak hobetzea, berreskuratzea eta birgaitzea (Arnabal zabortegiaren inguru esate baterako), ekintza zehatz eta positibo bidez.
- 3.- Bere baitan inguru osoa hartuko lukeen Babes Plan Berezia egitea, lurzoru guztiaren mugatzea proposatuz; babes mailak eta jarduketara neurri egokiak ezarriz.
- 4.- Eremu ezberdinetarako landutako proiektuek honako helburu hauek izan ditzatela lehentasun bezala, lortu ahal izateko beharrezko diren baliabideak eskuragarriak izango direlarik:



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



1. Paisaia eta natur balioen kontserbazioa sustatzea.
 2. Eremu degradatuak bere onera ekartzea. Horretarako plan ezberdinak landuko dira gune horien ezaugarrien arabera: lurren deskontaminaziorako planak, basogintza planak...
 3. Inpaktuen identifikazioa eta hauek ezabatzeko edo murrizteko planak abiaraztea.
 4. Ekonomiarako, olgetarako eta hezkuntzarako ekintzak zein bertaratzeko sarbideak erregulatzea, inguru hau zaintzeko xedearekin.
 5. Inguruaren ezaugarriak hondatu ahal dituzten jarduerak edo proiektuak baztertzea.
 6. Edozein kasutan ere, ingurumen-inpaktuaren balioespena.
 7. Proiektu berriak abiarazteko orduan, inguru fisikoa mantendu beharreko ondasun urria dela kontuan hartzea.
 8. Antolamendu honek bere baitan hartu beharko du inguru hau bere osotasunean, zerikusirik edo loturarik ez duten leku zehatz batzuen gainean ekintzak proposatu beharrean.
 9. Helburu hauek lortzeko asmoz, proiektua aurrekontuaz eta langileez hornitzea.
- 5.- Sasiburu Mendikatea (Miru Gorria eta Belatz Gorria), Errekaxoko lurzoru ez-hiritarra, Gorostiza (Arrain Hiru Arantzaren eremua), Castaños Ibaia eta Loiola Erreka (errekako karramarro autoktonoa) dauzkaten natura, paisaia, aisi eta kultur balioak direla eta, eremu babestua aitortu eta hau aurrera eramateko beharrezkoak diren pausuak eman.

Babes proposamen aktibo batek natur gune zabal bat bere barnean hartuko luke, non bertoko landareek lur eremu zabalak beteko lituzke eta egiten diren ekintzak, aisialdikoak barne, ingurumenaren kontserbazioarekin bat etorriko liriteke, beraz zonaldea hondatzen edo eraldatzen dituzten proiektuak debekatuta egongo liriteke.

Babes eremuaren aitortpenak lehenago azaldutako helburuetan oinarritutako Plan Berezi bati lotuta egon beharko litzateke.

Bere natura-balioek potentzial handia ematen diote zonalde honi eta modu egoki batean erabili ahal izateko, birsorkuntza plan bat (fauna eta flora autoktonoa) sortzea eta martxan jartzea beharrezkoa izango litzateke eta baita inguru gaineko eraginaren (espezie inbaditzaileak) ezabaketa ere. Bilbo Handia osatzen duten Barakaldo eta bere inguruko herrialdeetatik duen gertutasunak zonalde honen balioa areagotu egiten du, mota honetako udalerrientzat ezinbesteko birikia da eta.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



Zonalde honen balioak zehazten dituzten hainbat ikerketa daude: José Ignacio Homobono, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UHUN), Bergarako Zentro Elkartua, Euskal Geografia Institutu, Andrés de Urdaneta.

Balio hauek, zonalde batzuen degradazio eta existitzen diren mehatxuak (Super-Sur autobidearen eraikuntza, Hegoaldeko Tren-saihesbidea, Tellituko harrobia, linea elektrikoa, kontrolik gabeko zabortegeak (Arnabal), Lindano gelaxka, Gorostiza eta Errekatxoko txaletak...) kontuan hartuta zonaldea babesteko ingurumen-babes araudi aktibo bat egitea aproposa eta egokia dela uste dugu. Araudi honetan ingurumen balioen berreskurapena eta mantentzea sustatuko da, hainbat erabilera ekonomiko, hezitzaile eta aisialdirekin batera, ingurumen balioen eta batez ere basoaren birsortzearekin bateragarriak direnean.

Eremu honek funtzio anitzeko baso bat izan liteke, funtzioak honako hauek izango zirelarik:

1. Naturala: habitat berrien sorrera, ekosistemen, faunaren eta floraren babesa...
2. Ikerkuntza zientifikoa.
3. Paisaia: garrantzi lokaleko paisaien babesa.
4. Aisialdia: aisialdirako ekintza formalak zein ez-formalak egiteko aire zabaleko eremua,
5. beti ere lehen aipatutako helburuak aurrera eramateko oztopo bat ez direnean.
6. Hezitzailea: balio-naturalak eta zonaldearen arazoak ezagutzeko ekintzak, inguruaren egoera hobetzeko ekintzak.
7. Nekazaritza eta basozaintza: gaur egungo basogintza ustiapena ordezkatzeko proposamenak praktikan jartzeko aukera, ustiapen zein espezie motei dagokionez.

Sasiburu Mendikatea, Errekatxo eta Argalario Mendia hiri-eremua inguratzen duen benetako baso bat izateko honako puntuak zehaztu eta praktikan jarri beharko lirateke:

- 1) Hiri-eremua inguratzen duen basoak bere gainazal osoa antolatu beharko luke eta ez bere baitan dauden zonalde zehatz batzuk bakarrik.
- 2) Mendigune mugatu beharko lirateke eta zati bakoitzaren ezaugarrietan oinarrituz neurri eta babes-maila zehatzak hartu: babes osoko zonaldeak, babes zonaldeak, aisia-toki, berreskurapenerako zonaldeak.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



- 3) Hiriarekin bat egin beharko luke, haien arteko zirkulazio erraza izateko aukerak bilatuz, oinezkoen sarbidea eta hiriko berdeguneekiko lotura bultzatuz.
- 4) Plan Partzialek babes bereziko zonalde bezala hartu beharko lukete.
- 5) Egungo bertoko landareek babestuta egon beharko litzateke. Mendigune osoaren landaredia berreskuratzea helburutzat duen Basogintza Plana ezinbestekoa da. Plan honek eremua zatitan banatu beharko luke basogintza ezaugarriak oinarritzat hartuz. Guk hiru zonalde proposatzen ditugu: basogintza lehentasuna duten eremuak, baso-larre sistemak eta atlantiar-landazabala. Zonalde hauetako bakoitzerako egiteko zehatzak zehaztu beharko lirateke, landaredi potentziala modu natural batean berreskuratzeko beharrezkoak diren babes-neurriak hartuz (animalientzako hesiak), berezko plantulak birlandatzeko aurretik existitzen ez direnean, existitzen diren sail landatuak modu egokian kudeatzeko ustiapena arautuz eta dibertsitatea handitzeko neurriak hartuz, jabetza pribatu zein publikoko zonaldeei erabilera zehatzak emateko, jabetza pribatuko eremuak erosteko planak egiteko eta azkenik, isolatutako zonaldeak (FP) haien artean lotzeko korridore berdeen bidez.
- 6) Sarbide eta bideen erabileraren antolakuntza eta arautzea beharrezkoa da eta baita aparkalekuena ere. Garraio publikoaren zerbitzua hobetuko da eta bere erabilera bultzatuko da.
- 7) Mota desberdinetako habitatak eta egungo paisaia mantentzeko aukera ematen duten ekintzak mantendu eta sustatu.
- 8) Inguruaren kontserbazio eta hobekuntzarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak martxan jartzea: natura-gidariak, birlandaketa, haztegiak, eraikuntzen berreskurapena, zabortegeien ezabaketa, bideen eraberritzea, ekoizpen ekologikoa etab.
- 9) Arnabal, Tellitu eta Santa Mariako harrobien eremuen berreskurapena. Lizentzia berriak ematea ez da bateragarria zonalde babestu baten garapenarekin.
- 10) Aisialdirako ekintzen antolakuntza: egingo diren ekintzak zehaztea, beharrezkoak diren hornidurak, ondo seinaleztatutako bidezidor sarea egitea eta baita bizikletentzako bidezidorrak ere. Jardueren erregulazioa eta debekua hiri-eremua inguratzen duen parkean proposatzen diren helburuekin bateragarriak ez direnean: ehiza, motocross, trial eta beste motordun ibilgailuen zirkulazioa beraien erabilera eremuaren gestioarekin lotuta ez dagoenean.
- 11) Ehiza arautzea, epealdiak eta zonaldeak mugatuz.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



- 12) Ekintza didaktikoak eta informaziokoak abian jartzea. Zonalde hauek babestea duen garrantzia ezagutzera emateko ingurumen-hezkuntza kanpainak eta hiritarrei zuzendutako berreskurapen eta hobekuntza ekintzak esate baterako. Beti ere, beharrezkoa den hornikuntza zehaztuz (aterpeak, markatutako eta gidatutako ibilbide berriak)
- 13) Existitzen diren inguru gaineko eraginak ezabatzeko plan zehatzak: zaborteziak, Tellituko harrobia, argi kondukzioak...
- 14) Egun FP eta EP bezala izendatutako gunek naturalak eta sortutako diren beste berri batzuk (espezia ezberdinen landa eremuak, indibiduen mugikortasuna erraztu dezaketen korridore berdeen bidez) bata bestearekin lotu.
- 15) Helburuak lortu ahal izateko urteko aurrekontu egokia esleitu.
- 16) Hemen aurkezten ditugun helburuak bete ahal izateko beharrezkoak diren langileak esleitu.
- 17) Babesguneerako egiten dugun proposamenaren helburuak betetzea galarazten dituzten proiektuak debekatzea.
- 18) Proiektu honek instituzio ezberdinen ekarpenak jaso litzake (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Espainiako Gobernua), beraz, zama ekonomiko osoa ez litzateke udalaren esku geldituko. Gainera, kalitatezko lanpostu berrien (biologoak, ingurumenlariak etab.) eta boluntarioek egiteko proiektuen iturria izan daiteke.

Proposamena kontsulta eta eztabaida prozesu bidez gauzatu beharko litzateke, biztanle guztiek parte har dezaten.

6.- Eusko Jaurlaritzaren, Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legearen 72. artikulua araberak, Barakaldoko gunek naturalen Babes eta Kontserbaziorako Plan Berezia martxan jartzea, honako ezaugarriak izango zituelarik:

A) Oraingo Hiri-antolamendurako Plan Nagusian (HAPN- PGOU) definitutako lurzorua urbanizatu ezina hartuko luke bere baitan, honako kalifikazioetako batetan sartuz:

- Babes bereziko eremuak
- Ekosistemen hobekuntzarako eremuak
- Berreskuratu beharreko degradatutako eremuak
- Gainazaleko uren babeserako eremuak
- Basoen babeserako eremua

Honetaz gain, kontuan hartuko beharko litzateke ingurumenaren babeserako legeri sektoriala, bereziki:



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



- Akuiferoen kalte-beratze guneak
- Urak gainezka egiten duen eremuak
- Eremu erosiagarriak
- Babestutako gune naturalak (Natura 2000 Sarea, Natura Intereseko Guneak (LAG), heze guneak, parke naturalak, biotopoak, korridore ekologikoak...) udalerrian eta eskualdean.
- kultur balioengatik babestu beharreko gune eta elementuak (arkeologia, etnografia, artea...)

Oso bereziki, Sasiburuko Mendikatea, Errekato (lurzoru ez-hiritarra), Argalario Mendia, Gorostitza (landa-eremua) eta Castaños Ibaia.

Azkenik, existitzen diren edota aurreikusita dauden azpiegituren eragina txikitzea eta baita neurri zuzentzaileak ezartzea ere.

Hiri-lurzoruari eta lurzoru urbanizagarriari dagokionez, eremu libreko sistema orokor gisa kalifikatutako eremu guztiak kontuan hartu beharko lirateke:

- Hiri-parkeak
- Gune berdeak eta gune libreak
- Ibilguak eta urtegiak

Oso bereziki, kontuan hartu beharko lirateke:

- Gorostizako eta BLGko (AHV) urtegiak
- Gurutzetako eremua
- Lutxana, Llano eta Munoako eremua
- Arrontegiko eremua
- Urban-Galindo eremua
- Argalarioko eremua
- Zuloko Ibarretako eremua
- Agate Deunako eremua
- Lorategi botanikoaren parkea
- Tellaetxeko parkea

B) Plan Berezi horren elaborazioa, garapena eta egitea udalaren eskumena izango litzateke, HAPNaren (PGOUren) garapenaren eta dagokien hirigintza- baliabideen bidez.

Plan Berezi honen egilea Udala izango litzateke eta tramitazio administratiboa ere Udalak zuzenean egingo luke, bere giza baliabide eta gaitasun teknikoaren bidez eta behar izanez gero, kanpo aholkularitzen laguntzaren bidez.



www.barakaldonaturala.blogspot.com
barakaldonaturala@gmail.com

PLATAFORMA EKOLOGISTA
Euskadi Etorbidea 38, Lonja Esk. 48902 Barakaldo (Bizkaia)
Tfnoa. 667936126 - ezpitsu@gmail.com
CIF: G 95524872



Araudi-garapena modu honetara gauza liteke:

- Ekintza zehatzak arautzeko udal-ordenantzak
- Kudeaketa Planak
- Jarduketa-programak, denbora plangintzarekin eta aurrekontu esleitua
- Ondarearen kontserbaziorako eta zaharberritzeko obren proiektuak, hirigintza
- eta azpiegituren garapena...

C) Plan Berezi honen elaborazioan eta egitean udalerriko entitateen parte hartzea mota askotakoa izan daiteke. Udaletxearen jarrera oso garrantzitsua da, parte hartzeko baliabideen erabilera errazteko eta sustatzeko borondatea...

Udaletxea eta interesdun entitateak, gai honetan, elkarrekin lan egin ahal izateko baliabide zehatzak egitea proposatzen dugu. Hiritar elkarte eta entitateek proposamen zehatzak egiteko aukera izango lukete. Proposamen hauek, Plan Berezi (xehetasun eta elaborazio maila desberdinekin) baten proposamenetik hasita, gai edo lurralde-eremu zehatz batzuei zuzendutako jarduketa proposamen partzialak edota sektorialetara, hauek guztiak erretserba naturala eta eremu desberdinak lotzeko korridore ekologikoak sortzeko ideia orokorraren barruan.

Lehen adierazitako Plan Bereziaren eta araudi garapenareko baliabideen garapenaren eta elaborazioaren ondorio bezala jarduketa zehatzak lortuko dira, hauetan aipatutako parte hartze motak sartuko lirateke.

Proposamen horietako batzuen elaborazioa eta egitea berehala (Plan Berezia elaboratu arte itxaron gabe) aurrera eramán daiteke, jadanik ikertuta edo adierazita (udal jarduketa-planak, Tokiko Agenda 21, hiritarren proposamenak,...) daudelako eta egungo hirigintza-legediarekin bateraezinak direlako.

Barakaldon, 2009ko ekainaren 23an.